

HERNANIKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKAIKURAN HARTZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI ERREGULATZAILEAK.

ARRAZOIEN AZALPENA

Hernaniko Udalak 2014. urtean Aztikerrekin batera, Hernaniko gazteen egoera aztertzeke prozesu parte-hartzailea jarri zuen martxan. Gaztetu Hernani prozesuaren helburua Hernaniko gazteriaren egoera gazteekin aztertzea zen, iritzi, joera eta behar nagusiak detektatzeko eta ahal den neurrian hauei erantzuteke. Prozesu honen barruan, etxebizitzaren alorrean, hainbat eskaera eta proposamen egin ziren. Hauen artean, alokairurako erraztasunak ematea proposatu zen, gazteen testuinguru eta baliabide ekonomikoak kontuan hartuz. Oinarri hauek eskaera honi erantzuteke asmoa dute.

Prozesua amaitzearekin batera eta gazteen eta udalaren artean sorturiko dinamikari jarraipena emateke asmoz, "Gaztetu" gazte-kontseilua sortu da. Jarraian agertuko diren hainbat baldintza eta eskakizun kontseilu honetan landu dira. Oinarri hauek bertan hitz egindakoari eta erabakitakoari jarraitzen saiatu dira.

Era berean, 2014an buruturiko 2015eko udal aurrekontuan parte-hartzeke prozesuan, herritarrek alokairua sustatzeko diru-laguntzak ematea proposatu zuten: gazteei zuzendutakoak eta gainerako herritarrei zuzendutakoak. Halaber, Hernaniko Udalak egindako hausnarketaren ondorioz, etxebizitza alokatzeke zailtasunak dituzten beste talde batzuk badaudela antzeman du, alokairuko diru-laguntza hauek banatzerakoan tratamendu berezia beharko luketenak, alegia.

Hau guztia horrela izanik, oinarri arautzaile hauen xedea da Hernanin etxebizitzak alokairuan hartzeke diru-laguntzak ematea arautuko duten oinarriak adostea. Diru-laguntza hauek, indarrean dauden beste diru-laguntza batzuk (gizarte-bazterkeriari aurre egiteke; bazterkeria pertsonala, soziala nahiz laborala arintzeke edota gizarteratzea errazteke) jasotzeke eskubiderik ez duten pertsonentzako dira.

Azken helburua da:

- Bereziki pertsona gazteei laguntzea euren emantzipazio bidean.
- Modu orokorrean, Hernanin alokairuko etxebizitza eskuratzea erraztea.

I. XEDEA

1. artikulua. Xedea.

Laguntza hauen xedea da eskaera egiten dutenen ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea zati batean, dagoeneko etxebizitza errentan hartuta daukatenean eta horretara bideratuak dauden gainerako laguntzetarako

(Etxebizitarako Prestazio Osagarria edo Gizarte Larrialdietarako Laguntza) eskubiderik ez dutenean.

Bi adin-multzo ezberdindu dira:

“A-Modalitatea”: Gazteak. Gaztea esatean, 18 eta 35 urte bitarteko pertsona esan nahi da.

“B-Modalitatea”: Helduak. Heldua esatean, 36 urtetik gorako pertsona esan nahi da.

Etxebizitza partekatzen duten gazte eta heldu guztiak izan daitezke onuradun, baldin eta errentamendu-kontratua denek sinatzen badute banan-banan eta baldin eta beste baldintza guztiak betetzen badituzte. Kasu horretan, kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da diru-laguntza, eta onuradunak hamabi hilabetean ordaindu beharreko alokairua ordaintzeko erabiliko da, baldintza horiek epealdi horretan zehar mantentzen baldin badira.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagunduko diren alokairu-gastuak deialdia zabaltzen den urte horretako irailaren 1etik hurrengo urteko abuztuaren 31ra bitartekoak izango dira.

Araudi honetan jasotakoari jarraiki, alokairutik edo diruz lagundu daitezkeen kontzeptutik kanpo geldituko dira, garaje eta komunitate eta administrazioko gastuak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten.

2. artikulua. Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzordea da, 2015ko urriaren 2ko Alkate Dekretuz emana.

3. artikulua. Ezargarri den araudia.

Diru-laguntzak ematea eta onuradunaren eta entitate emailearen arteko harreman juridikoa arautuko dira oinarri hauen arabera eta laguntza ematen den unean indarrean dagoen araudiaren arabera.

Oinarri horietan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte diru-laguntzak:

- Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Diru-laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.
- Hernaniko Udalaren udal diru-laguntzen araudia 2004koa (GAOn argitaratua 2005-02-18)
- Hernaniko Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa 2017-2019 (GAOn argitaratua 2015ko abenduaren 27an)

4. artikulua. Bizikidetza-unitatea osatzen duten kideak eta eskatzaileak bete beharreko baldintzak

Bizikidetza-unitatea pertsona hauek osa dezakete:

- Bakarka bizi diren pertsonak.
- Beste pertsona batzuekin bizi direnak. Diru-laguntza eskatzeko formula aukerazkoa da, eta eskatzaileen esku egongo da bata ala bestea aukeratzea:
 - o Pisu-kideen arteko harreman ekonomikorik ez badago (errentamendu-kontratuaz aparte) . Pisu-kide bakoitzak aurkeztuko du, bere izenean bakarrik, diru-laguntza eskaria. Edozein kasutan ere, etxebizitza berean bizi diren gainerako pisu-kideen izenak aipatu beharko ditu eskaera-orrian.
 - o Pisu-kideen artean senidetasun harremana edota harreman ekonomikoa baldin badago (errentamendu-kontratuaz aparte), eskari bakarra aurkeztuko dute, eta heldu guztiek sinatuko dute eskaera hori.

Bete beharrekoak

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradun izan daitezke diru-laguntza eskatzeko epea amaitu baino lehen eta diruz lagunduko den epealdian zehar (adinarena salbu), baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak edo bizikidetza-unitateak.

a) Eskatzaileen adina:

“A-Modalitatea”: deialdia zabaltzen den urtearen abenduaren 31rako 18 eta 35 urte bitarte dituzten gazteei zuzendutako diru-laguntzak.

“B-Modalitatea”: 36 urte edo gehiago dituzten helduei zuzendutako diru-laguntzak.

b) Errolda:

Diru-laguntzen onuradun diren bizikidetza-unitateko pertsona guztiek diru-laguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatuta egon beharko dute, diru-laguntza eskatzeko epea amaitu baino lehen.

Halaber, kontratuaren titular ez diren adin nagusiko pertsonak baleude etxebizitzan erroldatuta, kontratuaren titularrek erroldan baja-eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, eskaera aurkeztearekin batera.

Erroldak eta kontratuak bat etorri behar dute adin nagusiko pertsonen kasuan.

Diru-laguntza pertsona bakarrentzat eskatzen bada, berak bakarrik egon beharko du Hernanin erroldatuta gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin

etenik gabe, diru-laguntza eskatzeko epea amaitzen den egunetik iraganera kontatzen hasita.

Diru-laguntza bizikidetzaren unitate osoarentzat eskatzen bada, gutxienez bizikidetzaren unitateko kide batek egon beharko du Hernanin erroldatuta gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin etenik gabe, diru-laguntza eskatzeko epea amaitzen den egunetik iraganera kontatzen hasita.

- c) Onuradunaren eta errentatzailearen artean ezin izango da inolako familia-loturarik izan odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.
- d) Eskatzaileetako edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideetako batek ere ez du izango bere jabetzako etxebizitzarik, salbu eta herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako jabetza osoko etxebizitza baten titular-kide denean, eta kotitularitate-portzentajea %50etik gorakoa ez denean, partaidetzen balioa 76.500,00 euro baino gehiagokoa ez bada. Balioa herentzia edo dohaintza dokumentuan azaltzen dena izango da.

Hala ere, laguntza eskatu ahal izango dute etxebizitza baten jabe %50ean baino gehiagoan diren herritarrek, salbuespen egoeran baldin badaude eta etxebizitza hori legez erabili ezin badute.

- e) Bizikidetzaren unitateko diru-sarreraren muga urteko deialdian zehaztutako kopurua baino txikiagoa izango da.
- f) Bizikidetzaren unitateko kideek ezin dute udal ogasunean zorrik izan onuradun izan ahal izateko
- g) Eskatzaileak edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste diru-laguntzaren bat (administrazio honek edo besteren batek emana) kobratzeko eskubidea baldin badu, ezin izango du diru-laguntza hau jaso, 14. artikuluan xedatutako salbuespen egoeratako kasuetan izan ezik.
- h) Eskatzaileak edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste diru-laguntzaren bat (administrazio honek edo besteren batek emana) kobratzeko eskubidea izanda, ukatu egin bazaio, betebeharrak ez betetzeagatik edota dokumentazio faltua aurkezteagatik, ezin izango du diru-laguntza hau jaso.

Salbuespen egoerak

Aipatutako baldintzak betetzen ez badituzte ere, diru-laguntza eskatzeko aukera izango dute eskatzaile hauek:

- 18 urte beteta ez izan arren, beren kaxa bizi diren gazteak, bizikidetzaren unitate berria sortu dutenean, hain zuzen ere. Udaleko Zerbitzu Sozialek egiaztatu beharko dute egoera hori.
- Gizarte-bazterkeriako egoeran eta premia larrian egonda, alokairua ordaintzeko indarrean dauden diru-laguntzak jasotzen ez dituztenean. Udaleko Zerbitzu Sozialek egiaztatu beharko dute egoera hori.

- Bananduta edo dibortziatuta daudenean. Kasu horretan, epai judiziala eta hitzarmen arau-emailea aurkeztu beharko dira, etxebizitzaren erabilera beste ezkontideari eman zaiola egiaztatzeko.
- Ohiko etxebizitzatik etxe-gabetu dituztenean. Kasu horretan, etxe-gabetze erabakia duen epaia aurkeztu beharko da.
- Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeriako kasu bat denean. Udaleko Zerbitzu Sozialek egiaztatu beharko dute egoera hori.
- Bere etxebizitza erabili ezin dutenean hondamendiren bat gertatu delako (uholdea, sutea, eta abar) edota suntsituta dagoela legez aitortu izan den kasuetan.

Nolanahi ere, onuraduntzat jotzeko, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, Administrazio Publikoek ematen dituzten diru-laguntzen arauetan ezarritako baldintzak bete izana egiaztatu beharko da.

Bizikidetzaren unitatearen baliabideak zehazteko, eskatzailearen eta aipatu unitateko gainerako pertsonen baliabide guztiak konputatuko dira, hau da, etekinak nahiz ondarea.

5. artikulua. Etxebizitzek bete beharreko baldintzak.

1. Diruz lagunduko den etxebizitzak Hernaniko udalerrian egotea.
2. Etxebizitza Udal erroldan altan emanda egotea.

6. artikulua. Baztertzeak.

Ez dira onartuko kasu hauetan sartzen diren eskaerak:

- a) Lehendik dagoen eraikin batean kokaturik ez badaude, eraikin hori hirigintza-planeamenduan finkatuta ez badago edota haren aurreikuspenekin bat ez badator.
- b) Urteko deialdian zehaztuko den gehienezko alokairu-gastua gainditzen duten etxebizitzak
- c) Urtebete baino iraupen txikiagoa duten alokairu-kontratuak.
- d) Eusko Jaurlaritzaren Alokabide Sozietate Publikoak kudeatutako programen bitartez alokatutako etxebizitzak.
- e) Logelen alokairuak.
- f) Berrakurak.

II. ESKAERAK

7. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan jasoak datozenaz gain, onuradunak honako hauek ere bete beharko ditu:

- Diru-laguntza erabiltzea oinarri hauetan jasotzen diren helburuak betetzeko.
- Eskatzen zaion informazio osagarri guztia aurkeztea Hernaniko Udalari.
- Diru-laguntza ematean kontuan izandako edozein gorabehera - hala objektiboa, nola subjektiboa - aldatzen bada, horren berri ematea.
- Oinarri hauetako 4. artikuluko b) apartatuan erroldatzeari buruz ezarritako baldintzak betetzeko egin beharreko gestioak egitea.

8. artikulua. Eskabideak aurkeztea.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa hau izango da:

1. Eskaera-orri ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
2. Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren Nortasun Agiriaren, pasaportearen edo egoitza txartelaren fotokopia. Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia edo jaiotza-ziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Dokumentazio hau beharrezkoa izango da, kasu guztietan, senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.
3. Etxebizitzan bizi diren kideen izen-abizenak eta NA, pasaporte edo egoitza txartelaren zenbakia, bizikidetzaren unitate berekoak izan ala ez, Udalak egiazta dezan Biztanleen Udal Erroldan.
4. Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia, kontuan izanda 12 hilabeteko iraupena izan beharko duela gutxienez. Alokairu-kontratua Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-finken errentamendu-kontratuen erregistroan inskribatua egongo da.
5. Eskatzailearen kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.
6. Espainiako Haziendak egindako ogasun higiezinaren gaineko ondasunen ziurtagiria.

Etxebizitza baten titular-kide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:

- Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta etxebizitza-partaidetzaren eskritura.
 - Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura.
 - Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualdatzearen eskritura.
7. Bizikidetzaren unitateko kide guztien ekitaldiko diru-sarrera eta zergen gaineko honako dokumentu hauek:
 - 7.1. Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorria.
 - 7.2. Azkeneko 3 hilabeteetako diru-sarreraren frogagiriak (nominak, autonomo ordainagiria...)
 - 7.3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egitera behartuta dagoenak (PFEZ) edo dagoeneko egina duenak, betetako azken

zerga-ekitaldiko PEFZ aitorpenaren fotokopia eta jatorrikoa, biak erkatzeko, eskaera hau aurkezteko unean.

7.4. PFEZaren aitorpena egitera behartua ez dagoenak honako hauek eman beharko ditu:

- Besteren konturako langileak badira: kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrera gordin guztiei buruzko dokumentua, ekitaldi horri buruzkoa eta enpresak edo enplegu-emaileak emandakoa (10T).
 - Pentsiodunak edo bekadunak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenak badira (Zerbitzu Sozialetako laguntzak barne): ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria.
 - Langabezian egonik prestazioa jasotzen ez duenak Lanbidek igorritako inskripzio-aldien txostena izeneko ziurtagiria.
8. Zinpeko aitorpena, Administrazioarekin Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga obligazioak egunean daudela adierazten duena.
 9. Beste diru-sarrera batzuk (zenbatekoa adieraziko da) badaudela eta/edo beste erakundeetan diru-laguntza eskatu dutela adierazten duen zinpeko aitorpena.
 10. Zinpeko aitorpena, orokorrean edonolako diru-laguntzak jasotzea eragozten duen egoeran ez dagoena. Halaber, oinarri hauen 4. eta 5. artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela zinez aitortu beharko du bai eskatzaileak bai eta bizikidetzaren unitate bereko adin-nagusiko pertsona guztiek ere.
 11. Banatzea edo dibortzioa dagoenean, hitzarmen arau-emailea eta epai judiziala.
 12. Etxe-gabetzea denean, etxe-gabetzea erabaki duen epaia.
 13. Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeria kasu bat denean, oinarritzko gizarte-zerbitzuen txostena.
 14. Hondamendia denean, Hernaniko Udaleko zerbitzuek frogagiri gisa emandako txostena. Suntsitze-egoeran dauden etxebizitzak kasuan, hori aitortzen duen legezko agiria.
 15. Diru-laguntza emateko betebeharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

Eskatzaileek berariazko baimena eman beharko diete Hernaniko Udaleko udal zerbitzuei, eskumena duten erakundeek laguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzeko datuak bildu ditzaten, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 6. artikuluan ezarritakoa betez. Erroldako datuak Udalak jasoko ditu zuzenean. Baimena eman ezean, dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute eskariarekin batera.

Arau bera ezarriko da Ogasunari dagokion informazio honetan (betetako azken zerga-ekitaldikoa):

- PFEZ: Zerga oinarria.

- PFEZ: Aitorpenaren laburpena.
- Ondasun higiezinak: Hiri etxebizitzaren titularra
- Ondasun higiezinak: Gipuzkoatik kanpoko etxebizitzak.

9. artikulua: Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Eskabideak, urtero Gipuzkoako **ALDIZKARI OFIZIALEAN** argitaratuko den deialdian adierazitako epealdian aurkeztuko dira.

Laguntza hauek jaso nahi dituzten pertsonak, deialdian jasotakoari jarraiki, Hernaniko Udalaren **HHZ-Herritarren Harrera Zerbitzuan** eskuragarri jarriko den eskaera-orri ofiziala behar bezala jasota bertan aurkeztu beharko dute.

Diru-laguntza eskatzeko deialdian ezarritako epea igaro eta aurreko apartatua adierazitako dokumentazioa ez aurkezteak, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 37. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

10. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, prozedura artxibatuz, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

III. DIRU-LAGUNTZAK EMATEA

11. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Diru-laguntzaren zenbatekoa errentaren arabera finkatuko da: hileko errenta konputagarriaren portzentaje bat izango da, eskaera bakoitzeko hileko hainbat euroko gehienezko muga izango du, eta gehienez 12 hilabeterako emango da, diru-sarreraren arabera.

Diru-laguntzen gehienezko kopuruak urteko deialdietan zehaztuko dira.

Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa kuantifikatzeko, kontuan hartuko da oinarri hauetako 1. artikuluan bazterketei buruz ezarritakoa. Era berean, errenta konputagarria ere artikulua horretan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu da, alokairua partekatzen denean aplikatzekoak diren xedapenak kontuan izanda.

Esleipen-prozesuan A-Modalitateko eta B-Modalitateko eskariak aztertu eta esleitu dira. Kasu bakoitzean, lehentasuna izango dute salbuespen egoeran daudenen eskariak. Dagokion adin-multzorako aurrekontu-partida erabiliko da. Gainerako eskarien zenbateko osoak dagokion aurrekontuko partidaren esleitutako zenbatekoa gainditzen badu, zenbateko hori diru-laguntza guztien artean banatuko da proportzionalki.

12. artikulua. Diru-laguntzaren ordainketa.

Alokairu partekatua denean, bizikidetza-unitate bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

Diru-laguntza zatika ordainduko da:

- Lehenengo ordainketa deialdia ebatzi ondoren egingo da. Ebazpenean zehaztuko da frogagiriak aurkezteko epea. Agiriak HHZ-Herritarren Harrera Zerbitzuan entregatu beharko dira. Agiriak aztertuta, lehen ordainketa aginduko da, 2018ko irailetik hasita data hori dagozkion ordainagiriaren arabera.
- Bigarren ordainketa egin ahal izateko hurrengo egiaztatze-agiriak beranduenez ere 2019ko irailaren 30a baino lehen aurkeztuko dira udaletxean, bestela diru-laguntzaren emakida bertan behera geratuko da.

13. artikulua. Agiri egiaztagarriak.

Diru-laguntza emandakoan, dagozkien ordainketak onuradunak agiri hauek aurkeztuko ditu:

- a) Alokairu kontratuaren baitan egindako hileko ordainketa agiriak. (Onuradunaren izenean agindutako banku transferentziaren agiria)
- b) Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorria.
- c) Diru-sarreraren agiriak (nominak, aparteko ordainsariak, etab.) edo norberaren kontura lan egiten duenak Gizarte Segurantzako kuotak ordaindu izanaren ordainagiriak. Langabezian egonik prestazioa jasotzen ez duenak Lanbidek igorritako inskripzio-aldien ziurtagiria.
- d) Onuradunaren egoeran aldaketaren bat izan bada, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera dokumentazio berria aurkeztera behartzen duena.

Gastuak egiaztatzeko faktura, edo merkataritzako trafiko juridikoan froga balio bera duten edo administrazioaren aurrean eraginkortasuna duten bestelako agiriaren bidez, bai jatorrizko agiriak, bai zigilatutako fotokopiak aurkeztuko dira.

Emakidak irauten duen bitartean, emakidaren baldintzak mantendu behar dira (errolda, diru-sarrerak...). Mantendu ezean, diru-laguntzaren emakida bertan behera geratuko da, eta pertsona onuradunak Udalak emandako zenbatekoak itzuli beharko ditu, gutxienez baldintza bete izan ez diren epearen iraupenari dagozkionak.

Eskatzaileak agiri justifikagarriak dagokion epean aurkezten ez baditu, diru-laguntzaren emakida bertan behera geratuko da .

14. artikulua. Beste diru-laguntzekin bateragarritasuna.

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzak helburu berarekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateraezinak izango dira.

Berariaz baztertuta daude Alokabide Programaren bitartez etxebizitza alokatuta dutenak.

Salbuespenak:

Lehenengo paragrafoan xedatutakoa ukatu gabe, alokairua ordaintzeko laguntza hauek osagarritzat joko dira oinarri hauen 4. artikuluan xedatutako albuespen egoeretako kasuetan, eta Gaztelagun programaren alokairuko laguntzen onuradun izan daitezkeen gazteen kasuetan.

Bi kasuetan, alokairuko diru-laguntza hauek 11. artikuluan ezarritako gehienezko laguntza-mugara iritsi arteko izaera osagarria izango dute.

4. artikuluan xedatutako albuespen egoeretako kasuetan, beharrezkoa izango da Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialeko aldeko txostena.

15. artikulua. Finantzazioa.

Alokairurako diru-laguntzak finantzatzeko diru-baliabideak Hernaniko Udalaren Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako ezarritako aurrekontu-kredituak erabiliko dira. Urteko deialdian zehaztuko dira partida(k) eta kopurua(k), betiere "A-Modalitatea"-Gazteak eta "B-Modalitatea"-Helduak berezitez. Bi modalitate hauetako partidak lotesleak izango dira, betiere modalitate bakoitzeko eskari guztiak aztertu eta esleituta izandakoan dirua soberan gelditzen bada.

Emandako laguntza guztien batura ezingo da izan horretarako onartutako aurrekontu-kreditua(k) baino handiagoa.

IV. PROZEDURA

16. artikulua. Laguntzak emateko irizpideak.

Diru-laguntzak emateko oinarriko irizpideak oinarri hauetan xedatutakoak dira. Irizpide nagusia hau izango da:

— Modalitate bakoitzean ("A"-Gazteak eta "B"-Helduak), lehentasuna izango dute albuespen egoeran daudenen eskariak. Eta dagokion adin-multzorako aurrekontu-kredituaren kopurua erabiliko da. Urteko deialdiaren tauletan azaltzen diren gehienezko diru-laguntzen kopuruak esleituko zaizkie.

— Ondoren, modalitate bakoitzeko gainerako eskariak aztertuko dira. Modalitate bakoitzari dagokion zenbateko osoak horretarako izendatutako aurrekontu-kredituan kontsignatutako kopurua gainditzen badu, zenbateko hori diru-laguntza guztien artean proportzionalki banatuko da.

Ezarritako baldintzak eta bete beharrak betetzen direla egiaztatu ondoren, dagokion diru-laguntzak oinarri arautzaile hauetan ezarritako baldintzetan emango dira.

17. artikulua. Prozedura.

Instrukzioa eta ebazpena.

1. Udalaren barruan dagokion Sailak egingo ditu oinarri arautzaile hauetan aurreikusitako laguntzen espedienteak instruitzeko lanak. Zerbitzu tekniko eskudunek eskaerak aztertu eta ebaluatuko dituzte, eta ebazpen-proposamena egingo dute. Diru-laguntzei behin betiko onarpena emateko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzordea izango da.
2. Diru-laguntzen behin-behineko ebazpen proposamena, interesatuei jakinaraziko zaie, Hernaniko Udaleko iragarki taularen edota web orriaren bidez, eta egoki iriztitako alegazioak egiteko hamar eguneko epea emango zaie.
3. Hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da. Bertan jasoko da: eskaerak aurkeztutako pertsonen zerrenda, proposatutako diru-laguntza eta zenbatekoa. Diru kopurua diru-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskari guztien artean banatuko da. Behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak onartzeko gero, behin betiko zerrendetako diru kopuruetan aldaketak egon daitezke. Alegaziorik egon ezean, ebazpen-proposamena behin-betikoa bihurtuko da.
4. Ebazpenean berariaz jakinaraziko dira ezetsitako eskaerak, halakorik balego.
5. Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehienezko epea hilabete batekoa izango da eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik. Aipatutako epean ebazpenik ez balego, aurkeztutako eskaera atzera bota dela adierazi nahiko du.
6. Ebazpenean diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa-era zehaztuko dira.

V. DIRU-LAGUNTZAREN KONTROLA

18. artikulua.

Hernaniko Udalak onuradunei eskatu ahal izango die egokitzen jotako agiriak aurkez ditzatela .

Udalak dituen datu baseak kontsultatu ahal izango ditu diru-laguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

Udalak eskubidea izango du, beharrezkoa ikusiko balu, diru-laguntza honen onuradunen etxebizitzetan kontserbazio eta bizigarritasun egoerak gainbegiratzeko. Horretarako, alde aurretik esleipendunei jakinaraziko die Udalak zein egunetan eta zein ordutan duen ikuskatzea egiteko asmoa.

Hernaniko Udalak, bere fiskalizazio-eginkizunak betetzeko, informaziorik eskatuz gero, diru-laguntzen onuradunek eman egin beharko diote.

VI. ARGITARA EMATEA

19. artikulua.

38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, 18. artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, 30. artikuluan eta 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 8. Artikuluan, ezartzen dutena kontuan izanda, oinarri arautzaile hauei jarraiki

ematen diren laguntzak Udaleko iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko dira, eta halaber gardentasuna eta informazio publikoaren eskuragarritasuna garantizatzeko ezarritako tresnetan. Gainera, diru-laguntzaren zenbatekoa 3.000 €-koa edo handiagoa bada, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da. Beti errespetatuko da datu pertsonalak babesteko legeak xedatutakoa, eta, horregatik, datu pertsonalak modu disoziatuan emango dira.

VI. OINARRIEN INTERPRETAZIOA ETA HIZKUNTZA-OHARRA

20. artikulua. Hizkuntza-oharra.

Euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzeman ez gero, euskarazko testuak izango du balioa.

21. artikulua. Oinarrien interpretazioa.

Diru-laguntza emateko ardura duen organo berari dagokio oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantzari buruz erabakitzea.

VII. ERREKURTSOAK

22. artikulua. Errekurtsoak.

Diru-laguntzak emateko behin betiko ebazpenaren kontra berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organo beraren aurrean, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpenaren biharamunetik kontatuta.

Lehen xedapen gehigarria.

Araudi honek indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.

Azken xedapena

Araudi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunera.

I. ERANSKINA

Hernaniko herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko diru-laguntza deialdiak.

Urtero dagokion organo eskudunak onartuko ditu deialdiak. Hor zehaztuko dira urte bakoitzaren betebeharrak (partida eta aurrekontuko diru-hornidura; aurkeztu

beharreko agiriak; epeak, kopuruak...) eta aurkeztu beharreko eskaera orria ere onartuko da.

HERNANIKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKAIURUAN HARTZEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA 2018 URTERAKO.

1. Xedea eta epe diru-laguntzaren epearen iraupena.

Laguntza hauen xedea da eskaera egiten duten gazteen eta gainerako herritarren ohiko bizilekua izango den etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea, zati batean. Herritarrei etxebizitzak alokairuan hartzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileen 1. artikuluan zehaztatutakoa errespetatuko da.

Urteko deialdi honi dagokionez, gazteak kontsideratuko dira 1983. eta 2000. urte bitartean - biak barne - jaiotako herritarrak. Salbuespen gisa, eskatzaileak gazteagoak izan daitezke, baldin eta dagoeneko beren kaxa bizi badira, bizikidetzak unitate berria sortu dutelako.

Etxebizitza partekatzen duten gazte eta heldu guztiak izan ahal izango dira onuradun, baldin eta errentamendu-kontratua denek sinatzen badute banan-banan. Kasu horretan, eskatzaile bakoitza bizikidetzak unitate independentea dela ulertuko da, eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta.

Deialdi honetan eta berau arautzen dituen oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da diru-laguntza, eta onuradunak hamabi hilabetean ordaindu beharreko alokairua ordaintzeko erabiliko da, baldintza horiek epealdi horretan zehar mantentzen baldin badira.

Urteko deialdi honi dagokionez, diruz lagunduko diren alokairu-gastuak 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ko bitartekoak izango dira.

2. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura eta diru-laguntzak banatzeko irizpideak.

Deialdi honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 164.000 eurokoa izango da, eta hori 2018. urterako Hernaniko Udalaren Aurrekontu Orokorren 1 02.480.01.231.03 2018 (Gazteena) eta 1 02.480.01.231.04 2018 (Helduena) partidetatik egingo da. Partida osoen kopurua honela banatuko da:

- 82.000 euro: 18-35 urte bitarteko gazteek egindako eskarientzako ("A-Modalitatea")
- 82.000 euro: 36 urtetik gorako herritarrek egindako eskarientzako ("B-Modalitatea")

Diru-laguntzak emateko oinarrizko irizpideak oinarri arautzaileetan xedatutakoak izango dira. Irizpide nagusia hau izango da:

— Modalitate bakoitzean (“A-Modalitatea”-Gazteak eta “B-Modalitatea”-Helduak), lehenetsua izango dute salbuespen egoeran daudenen eskariak, dagokion adin-multzorako aurrekontu-kredituaren kopurua erabiliz. Urteko deialdiaren tauletan azaltzen diren gehienezko diru-laguntzen kopuruak esleituko zaizkie.

— Ondoren, modalitate bakoitzeko gainerako eskariak aztertuko dira. Modalitate bakoitzari dagokion zenbateko osoak horretarako izendatutako aurrekontu-kredituan kontsignatutako kopurua gainditzen badu, zenbateko hori diru-laguntza guztien artean proportzionalki banatuko da.

Emandako laguntza guztien batura ezingo da 164.000 eurokoa baino handiagoa izan.

3. Jardueraren hasierako eta amaierako epeak.

Edonola ere, alokairu kontratuak beranduenez diru-laguntza eskatzeko epea bukatzen den egunerako indarrean egon beharko du. Gehienez ere lagun daitekeen epea hamabi hilabetekoa izango da, 2018ko irailaren 1etik hasita.

4. Kopuruak.

Diru-sarrerari dagozkien gehienezko mugak hauek izango dira:

- 25.000,00 euro gordin urtean, bizikidetzaren unitatea pertsona bakar batez osatuta baldin badago.
- 39.000,00 euro gordin urtean, bizikidetzaren unitatea bi pertsona baino gehiagoz osatuta baldin badago.

Norbere kontura lan egiten duenei gutxienez 21.000€-ko diru-sarrerak dituztela kontabilizatuko zaie.

Alokairu-gastuei dagokionez gehienezko kopuru hau ezin izango da gainditu: hilean 650,00 €-koa

Diru-laguntzen zenbatekoak hauek izango dira:

- Bizikidetzaren unitatea pertsona bakarrak osatzen duenean:

Diru sarrera gordinak eurotan	Alokairu-gastuaren %	Gehienezko diru-laguntza
23.000,01 eta 25.000,00 € bitartean	% 20	100 €
21.000,01 eta 23.000,00 € bitartean	% 30	150 €

19.000,01 eta 21.000,00 € bitartean	% 40	200 €
19.000,00 € arte	% 50	250 €

– Bizikidetzeta-unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen dutenean:

Diru sarrera gordinak eurotan	Alokairu-gastuaren %	Gehienezko diru-laguntza
33.000,01 eta 39.000,00 € bitartean	% 20	100 €
30.000,01 eta 33.000,00 € bitartean	% 30	150 €
26.000,01 eta 30.000,00 € bitartean	% 40	200 €
26.000,00 € arte	% 50	250 €

5. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aurkezteko epea eta lekua.

Dokumentazioa: Eskaerak diru-laguntza honetarako prestatutako eskaera-orri normalizatuaren arabera aurkeztuko dira, behar bezala beteta. Eskaera-orri normalizatuak www.hernani.eus web orrian eta *hhz-Herriarren Harrera Zerbitzuan* egongo dira eskuragarri.

Eskaerarekin batera, diru-laguntza hauek arautzen dituzten oinarri orokorretako 8. artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkeztuko da.

Eskariak aurkezteko epea eta lekua:

Eskabideak aurkezteko epea 62 egun naturalekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Eskariak aurkezteko lekua Hernaniko Udalaren *hhz-Herriarren Harrera Zerbitzuan* (Gudarien plaza, 1) izango da astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara; edota arratsaldeetako Erregistro Zerbitzuan (14:00-19:00). *Hhz-Herriarren Harrera Zerbitzuaren* telefonoa 943 33 70 00 da eta helbide elektronikoa hhz@hernani.eus.

6. Ebazpena eta jakinarazpena.

Ebazpena egiteko organo eskuduna Hernaniko Tokiko Gobernu Batzordea da.

Prozeduraren ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta espedienteak tramitatu eta ebazteko eta behar diren jakinarazpenak egiteko epea bost hilabetekoa izango da gehienez. Epe hori deialdia argitaratzen denetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Prozeduraren ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta lege horretako 41. artikulua jasotzen dituen xedapenen arabera gauzatuko da.

7. Egiatitze agiriak eta aurkezteko epea.

Aurkeztu beharreko egiaztatze-agiriak oinarri orokorren 13. artikuluan zerrendatutako agiriak izango dira.

Egiaztatze-agiriak aurkezteko epeak hauek izango dira:

- Lehenengo ordainketa deialdia ebatzi ondoren egingo da. Ebazpenean zehaztuko dira frogagiriak aurkezteko epeak. Agiriak HHZ-Herritarren Harrera Zerbitzuan entregatu beharko dira. Agiriak aztertuta, lehen ordainketa aginduko da, 2018ko irailetik hasita data hori arte dagozkion ordainagirien arabera.
- Bigarren ordainketa egin ahal izateko hurrengo egiaztatze-agiriak beranduenez ere 2019ko irailaren 30a baino lehen aurkeztuko dira udaletxean, bestela diru-laguntzaren emakida bertan behera geratuko da.
- Edozein kasutan ere, 12 hilabete horien zehar aldaketarik egongo balitz hasieran aurkeztutako dokumentazioari dagokiona, honen berri segituan eman beharko zaio Udalari, dagozkion dokumentu berriak ere aurkeztuta, hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan, ohiko ordutegian. Jakinarazpen hori egingo ez balitz, egoera berria suertatu den datatik aurrera jasotako diru-laguntza kopuru osoa itzuli beharko dio onuradunak Udalari.

Alokairu partekatua denean, bizikidetzaren unitate bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

8. Hizkuntza-oharra.

Euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzemanaz gero, euskarazko testuak izango du balioa.

9. Errekurtsoak.

Interesatuak deialdi honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, argitaratutako egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko oinarri hauek onartu dituen organo eskudunaren aurrean, argitaratutako egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.